


INTXORTAKO GUDA



1936 eta 1937 bitartean,
zazpi hilabetez egon zen frontea
Intxorta inguruan, Elgetan.

Intxorta 1937 Elkarteak
sortutako ibilbidea oinarri bezala hartu
eta frontea bertan egon zen bitartean
inguruko biztanle eta auzotarrek
bizitako gertaerak bildu ditugu,
ibilbidean zehar entzun ahal izateko.

Gerrako Ahotsak
proiektuan jasotako
testigantzetan oinarritua.

Map data: ©2023 Google / Badihardugu Euskara Elkartea



testigantza eta
informazio gehiago
online mapan



1 FRONTEA INTXORTAN ZAZPI HILABETEZ



Lekukoa: Tomas Laskurain (Antzuola)

Gerra garaian familia osoak ihes egin zuen. Egoera politikoa zelakoa zen azaltzen du. Fronteak aurrera egin eta Elgetan gelditu zen 7 hilabeteen, neguan, Intxorta mendi inguruan. Hegazkin alemanak pasatzen ziren eta Bergaran Francoren artilleria zegoen. Eraso gogorak egon ziren Intxortan.

2 INTXORTAKO GUDA ELGETATIK IKUSITA



Lekukoa: Ramon Zabala (Elgeta)

Gerra garaian zazpi urte zituen. Etxe ondoan, Lapurdi baserrian, hiru bonba jausi ziren. Elgetan frontea zegoen: Bergaran nazionalak eta Intxortan milizianoak. Baserritarrak milizianoei laguntzen aritu ziren, gurdiekin materiala garraiatuz. Beraien baserriko ganadua Zaldibarrera eraman zuten gerratean.

3 ERREKETEAK BASERRIAN



Lekukoa: Jose Luis Arantzeta (Elgeta)

Urriko lehenengo igandean, Ama Birjinari eskainitako jaja egin ohi zen, eta baserrietako uzta orduantxe biltzen zen. 1936ko urrian, Jose Luis eta etxeok uzta biltzen ari zirela, erreketek etxera sartu zitzaizkien gorriez galdezka.

4 UBERAN, BI FRENTEREN ARTEAN JAI OA



Lekukoa: Julio Arbulu (Bergara)

Gerra hasi eta gutxira jaio zen, Uberako auzoan, bi fronteen artean. Intxortan gorriak zeuden eta beste aldean, nazionalak. Bataiatzeko, gudariak abisua bota zuten, trintxerek su-eten bat egiteko. Julio jaio zenean, aita kartzelan zegoen Donostian.

5 FRONTEEN KOKALEKUA



Lekukoa: Bernarda Arizmendiarieta (Elgeta)

Frontea non egon zen. Milizianoak Intxortan zeuden; eta erreketek, Bergara aldetik sartu zirenez, Partaiti aldean egon ziren, Asentzio inguruan. Bertatik bertara zeuden eta elkarri "demasak" esaten omen zizkieten.

6 INTXORTAKO GUDA ANGIOZARREKO TONTORRETIK



Lekukoa: Ixabel Belar (Bergara)

Intxortako guda baserriatik ikusten zuten. Etxetik gertu milizianoen postu bat zegoen eta asko borrokan hil ziren. Baserriko ikuiluan zaurituak jarri zituzten, eta hildakoak kanpoan. Han inguruan lurperatuta daude asko. Etxean koltxoiak jartzen zituzten leihoetan, balak ez sartzeko.

7 INTXORTAKO GUDA GAZETATIK IKUSITA



Lekukoa: Luis Izagirre (Elorrio)

Elorriora Besaidetik sartu ziren, beraiek etxetik ikusten zituzten. Gazetatik ikusten zuten guztia kontatzen du zehaztasunez.

8 INTXORTAKO BONBAK ELORRIORA



Lekukoa: Maria Igarza (Elorrio)

Soldaduen mugimendua sumatzen zen alde guztietan. Bergararik botatako kanoikadak etengabe heltzen ziren Elorriora. Behin, etxean sartu zitzaien bat.

9 INTXORTAKO GUDARIEN KANTUA



Lekukoa: Juanito Gallastegi (Durango)

Gogoan ditu Elorrioko gudariak Intxortara bidean, herriko emakumeek negar batean agurtzen zituztela. Orduan ikasitako abesti bat kantatzen du.



PANELAK



TRINTXERAK



testigantzak entzun

